

Irantzu Pastor Ordoki

INDARKERIA MATXISTAREN
ISLA ARGAZKIETAN IZOZTEN



ARGAZKI KAMERARIK GABE DEUS EZ!

Elkarrekin aritzen gara Irantzu eta biok ARGIAko atal honetan. Kamera eskuan heldu izan da beti elkarriketetara. Egun batean, elkarriketatua bera izatea proposatu nion, bere buruari autorretratuak eginez; berehala eman zidan baiezkua. “Ez da hain erraza autorretratu, baina egiten dut”. Denbora erdiz jarduten du argazkilaritzan hainbat mediotan, eta beste erdiz Baztan eta Bidasoako udalen turismo teknikari. “Ongi dago horrela, behar dudak oreka lortzen dut”. Bere lanez goatzeko aukera duzue www.irantzupastor.com atarian edota @irantzupastor kontuan Instagramen.

“Gatazka egoerak bizi dituzten emakumeen bizipenak biltzen ditugu”

Kolonbia, Kurdistan, Grezia, India... Munduko txoko anitz ezagutzeko aukera izan du Irantzu Pastorek (1985, Lesaka), plazerragatik eta baita lanagatik ere. Argazkilaria da. Mugarriak markatu dizkio bidaia bakoitzak. “Inoiz ez zara berdin itzultzen”, esan digu usu elkarriketak iraun bitartean. Begiradak biltzea du gustukoaren. Emakumeenganako indarkeriak biltzen ari da uneotan. Atzerrian hasi du lana, eta pandemia garai hauetan, etxeko, Euskal Herriko errealitatea aztertu nahian dabil. Behin lana osatutakoan, liburu batean biltzea da asmoa.

AITZIBER ZAPIRAIN IRANTZU PASTOR

Igone Mariezkurrenarekin batera, emakumeen kontrako indarkeriak biltzeko egitasmoa duzu eskuartean.

Hala da, bai. Igone kazetaria eta antropologoa da, eta ni aldiz argazkilaria. 2018. urtean gogoetatzen hasi ginen gaiaren inguruan, eta berehala, ilusio handiz ekin genion lanari. Urte hartan motxila hartu eta Palestinara joan ginen. Han bi aste pasa ostean, egitasmoari forma ematen hasi ginen. Han ikusi, bizi eta bildutakoak lagundu gintuen. 2019an Indian izan ginen. Eta aurren, pandemia lehertu aurretik, AEBetan egon ginen, Hego Dakotan, natiboekin.

Gatazka egoerak bizi dituzten emakumeen bizipenak biltzen ditugu, halakoetan ere emakumea izaten baita zapalduena eta azpiratuena. Jakina da emakumeok jasaten ditugun zapalketa ugari ikusezinak direla, eta azaleratzen ez badira bere horretan jarraituko dutela mendez mende. Hedabideetan albiste ugari ateratzen da,

bereziki indarkeria fisikoa muturreraino eramaten den gertakarien ingurukoa. Guk ordea, agertzen ez den azpiko sarea ezagutarazi nahi dugu proiektuaren bitartez. Kultura askok, oraindik ere, justifikatu egiten dute emakumeen kontrako indarkeria. Indarkeria zuzena baztuetan, eta zeharkakoa besteetan.

Nola lortzen duzu irudi batek islatzea emakume bat jasaten ari den zapalketa?

Kasu horretan, hagitz zaila da. Bereziki indarkeria mota ikusezinez mintzo garenean. Horregatik uzartzen ditugu argazkia eta testua, dena ongi azaldua egon dadin.

Emakumetik emakumera konplizitate sortzen da. Hagitz polita da sortzen den magia. Hasiera batean aski izututa geunden. Izan ere, emakumetik emakumera aritzen gara, baina lan honetan gu posizio pribilegiatu batetik ari gara, emakume zuri eta mendebaldar gisa. Hala ere, bada zerbait elkartzen gaituena, eta horrela lan egiten dugu.



"Emakumeek kontatu beharra izaten dute. Une batez, kamera begiratu eta munduko duintasun guztia islatzen dute begirada batean".

Orain arte egindako lanaren adibiderik?

Indiako bidaia oso gogorra izan zen. Pentsa, kanpotik ikusita gogorra dela esaten da, baina hango kaleetan barrena ibili ostean, are gogorragoa da. Hamarnaka errealitate gogor eta gordin ikusten genituen egunero, baina ni prostituzioak markatu ninduen bereziki. Ahmednagarren egon ginen; historikoki prostituzioaren zentro bezala ezagutua da, eta pertsonen trafiko handia dago bertan. Emakume bat ezagutu genuen. Garaian prostituzioan aritzen zen, baina gaur egun beste aldean dago, prostitutak laguntzen aritzen da. Harekin, burdel batean ere sartu ginen. Imajinaezina da ikusi genuena. Horrela bizi behar izatea, benetan latza da.

Horrez gainera, emakume nekazari batzuekin egoteko aukera izan genuen. Klima aldaketaren eta produktu kimikoen erabileraren ondorioak jasaten eta pairatzen ari dira. Lurra idortzen ari da. Gizonezko askok ezin dute egoera jasan, beren buruaz beste egiten dute, eta emakumea bakarrik gelditzen da familia aurrera aterara beharrean. Eta jakina da, emazte batek nekez egingen duela bere buruaz beste se-

me-alabak bakarrik utziz. Hori indarkeria da, ikusezina, eta hori azaleratzeko lana egiten ari gara.

Halako indarkeriak jasaten dituen emakume bat kamerari parez-pare begiratzeko gai da?

Bai, eta horrekin ere asko harritu naiz ni. Leku hauetaraino heltzeko zenbait GKErekin harremanetan jartzen gara, haiek ongi ezagutzen dute lekuan lekuko errealitatea. Argazkiak ateratzeko itxaropen gutxi eman ziguten. Baina orain artean behintzat, beti lortu izan dugu argazkiak ere egin ahal izatea. Magia sortzen da. Emakumeek kontatu beharra izaten dute. Une batez, kamera begiratu eta munduko duintasun guztia islatzen dute begirada batean. Aurpegia ematen dute.

Egitasmoa ez duzue amaitu, osasun krisiak harrapatu zaituzte bete-betean. Zein puntutan zaudete?

Afrikara joan nahi dugu ahal bezain pronto. Genitalen mutilazioetatik eta beste hainbat arrazoiengatik. Badakigu zaila izanzen zaigula, baina guk kontinen-

te guztietan jorratu nahi dugu gaia. Egia da geroz eta afrikar emakume errefuxiatu gehiago dagoela gure artean, eta haiekin ere lan egiten ahal dugula. Baina ahalaz, hara joatea da asmoa.

Emakumeen aurkako indarkeria ez da atzerriko kontua bakarrik, ezta?

Ez noski. Ez dugu atzerrira joan beharrik, emakumeen kontrako indarkeria bizi, ikusi eta pairatzeko. Etxean ere badugu zoritxarrez halakorik. Konfinamenduan pentsatzeko denbora izan dugu; urrutiko bidaia batzuk egin ahal izan ditugu eta orain etxera begira ari gara. Etxean beti da zailagoa baina. Irakasle batek esan zidan behin, zirujauak ez duela inoiz senidea operatzen. Ba gu orain horretan ari gara.

Zein euskarri duzue buruan?

Argazki eta testigantza liburu bat. Erraz kontsumitzekoa, lasaitasunez begiratzekoa, patxadaz. Bitartean argitalpenak egin ditugu hainbat euskal hedabidetan. Argazkien eta emakume horien testigantzen erakusketa bat ere egin nahiko genuke. Baina azken helburua liburua da. ●